


# URAREN ESPARRU ZUZENTARAUAREN PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROGRAMA, EGUTEGIA ETA FORMULAK



uraAGUA

2006



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

 **ingurumena.net**



## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>AURREKARIAK</b> .....	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>AGIRI HONEN EDUKIA</b> .....	<b>4</b>
<b>3.</b>	<b>LEGE ESPARRUA</b> .....	<b>4</b>
<b>4.</b>	<b>PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUA. OROKORTASUNAK</b> .....	<b>5</b>
<b>5.</b>	<b>PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUA EUSKADIKO BARNE-ARROETAN</b> .....	<b>6</b>
<b>5.1.</b>	<b>UREN KUDEAKETAKO GAI GARRANTZITSUEN ESKEMA</b> .....	<b>6</b>
<b>5.2.</b>	<b>EUSKADIKO BARNE ARROEN PLAN HIDROLOGIKOA</b> .....	<b>7</b>
5.2.1	PLAN HIDROLOGIKOAREN PRINTZIPIOAK ETA EDUKIA.....	7
5.2.2	INGURUMEN HELBURUAK, HELBURU ALTERNATIBOAK ETA SALBUESPENAK .....	8
5.2.3	PLAN HIDROLOGIKOAREN ESPARRUA ETA PRESTAKETA PROZESUA .....	8
<b>5.3.</b>	<b>NEURRIEN PROGRAMA</b> .....	<b>9</b>
5.3.1	NEURRIEN PROGRAMAREN EDUKIA ETA IRISMENA .....	9
5.3.2	NEURRIEN PROGRAMA ABIAN JARTZEA .....	11
5.3.3	NEURRIEN PROGRAMAREN APLIKAZIO MAILARI BURUZKO TARTEKO TXOSTENA .....	12
<b>5.4.</b>	<b>XEHETASUN PLAN EDO PROGRAMAK</b> .....	<b>12</b>
<b>5.5.</b>	<b>INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA</b> .....	<b>12</b>
5.5.1	EBALUAZIO PROZESUAREN PROPOSAMENA.....	12
5.5.2	INGURUMEN IRAUNKORTASUNeko TXOSTENA .....	13
5.5.3	KONTSULTA ETA PARTE HARTZE PUBLIKOA .....	14
5.5.4	INGURUMEN MEMORIA .....	14
<b>5.6.</b>	<b>EUSKADIKO BARNE ARROETAKO PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZE PUBLIKOKO FORMULAK</b> .....	<b>14</b>
5.6.1	PARTE HARTZE PUBLIKOA PLANGINTZA HIDROLOGIKOAN. PRINTZIPIOAK, ESKAKIZUN OROKORRAK ETA PARTE HARTZE MAILAK .....	14
5.6.2	LAN EGUTEGI ETA PROGRAMAKO KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA.....	16
5.6.3	GAI GARRANTZITSUEN ESKEMAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA .....	16
5.6.4	PLAN HIDROLOGIKOAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA .....	18
<b>6.</b>	<b>EUSKADIKO BARNE ARROETAKO PLAN HIDROLOGIKOAREN BERRIKUSPENA</b> .....	<b>18</b>
<b>6.1.</b>	<b>PLANGINTZAREN LEHEN ALDIAN EGIN BEHARREKO ALDAKETA ETA HOBEKUNTZAK</b> .....	<b>18</b>
<b>6.2.</b>	<b>PLANAREN BERRIKUSPENA ETA BIGARREN ZIKLOAREN HASIERA</b> .....	<b>19</b>
<b>7.</b>	<b>JARDUEREN KRONOGRAMA</b> .....	<b>19</b>



## 1. AURREKARIAK

Ur-politikaren esparruan jarduketa-esparru komunitarioa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentzarauak, Uraren Esparru Zuzentzaraua deiturikoak (aurrerantzean UEZ), uraren inguruko legeria europarraren erreforma sakon eta nabarmena eragin du. Anbizio handiko helburua du: alde batetik, ekosistema urtarren nariadura prebenitu eta horien egoera hobetzea eta, bestetik, uraren erabilera iraunkorra sustatzea. Helburu hori lortzeko UEZak Europar Batasunaren uren politikan oinarritzko bi ikuspegi berri sartzen ditu:

- bata, ingurumenekoa: nariadura gehigarria prebenitu eta ur kontinentalen eta kostaldeko uren "egoera ona" lortzea.
- eta bestea, kudeaketakoa: uren kudeaketako eredu berri bat arro hidrografikoen mailan, urarekin erlazioaturiko zerbitzuen kostuak berreskuratzea ahalbidetuko duen eta ur-baliabideen erabilera eraginkorrerako pizgarriak emango dituen ur-politika batean oinarritua.

UEZaren aplikazioaren ardatza mugaketa hidrografikoen mailan (arro hidrografikoak eta horien multzoak) egin behar diren eta mugaketan sartutako "ur-masa" bakoitzeko helburuak lortzeko tresna nagusi diren plan hidrologikoak deiturikoak dira. Planek ur-masek jasaten dituzten presio antropikoen analisi zehaztuetan eta inpaktuaren ebaluazioan oinarritu behar dute. Horrek neurri-programa koherentea eta berariaz mugaketa hidrografikorako eta bereziki ur-masa bakoitzarentzako aurreikusitako helburuak lortzeko diseinatutakoa ezartzea ahalbidetuko du. Plan horiek gauzatzeko, Estatu kideek mugaketa hidrografiko asko zehaztu, mugaketa bakoitzerako agintari eskudun bat izendatu eta parte-hartze publikoa, hau da, UEZaren aplikazioan interesa duten alderdi guztien parte-hartze aktiboa, sustatu behar dituzte.

UEZaren artikuluek hainbat zeregin eta jarduera ezartzen dituzte, askotan independenteak dira, beren ezarpen-prozesua definitzen dute eta plangintza-prozesu ere deitzen zaie. Epe luzerako prozesu ziklikoa da eta horren lehen aldia 2015ean

amaitzen da, hori baita ingurumen-helburuak lortzeko UEZan ezarritako lehen epea.

UEZ Espainian zerga, administrazio eta gizarte segurantzaren eta laneko arriskuei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bitartez sartu zen. Lege horrek bere 129. artikuluan Urei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du eta, bertan, aipaturiko UEZaren artikuluek sartzen ditu.

Arau horri jarraiki egin ziren Uren Legearen Testu Bateginaren III. tituluan egoki ziren aldaketak, plangintza hidrologikoaren inguruan. Zehazki, 40, 41 eta 42. artikuluek aldatu ziren eta 40 bis artikulua sartu zen. Halaber, aldaketak sartu ziren plangintza hidrologikoarekin eta horren helburua lortzearekin erlazio estua duten beste titulu batzuetan, adibidez, arro hidrografikoaren definizio berria eta mugaketa hidrografikoaren kontzeptua sartzeko (16 eta 16 bis artikuluek), Uraren Administrazio Publikoko aldaketak, Mugaketaren Ur Kontseilua eta Agintari Eskudunen Batzordearen aldaketak (35, 36 eta 36 bis artikuluek), ingurumen-helburu berriak, ur-masen egoera eta helburu horiek lortzeko neurrien programak (92 bis, 92 ter eta 92 quarter artikuluek), babestutako guneen erregistroa (99 bis artikulua) edo berariaz uren kudeaketarekin erlazioaturiko kostuak berreskuratzen printzipioa sartzeko (111 bis artikulua).

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak berriki onartu du ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legea, Euskadin uren gaitako politika europarrak gauzatzeko beharrezko tresnak ezartzeko eta, aldi berean, gai horri inplikaturako administrazio desberdinen esku-hartzerako arau-esparru egokia emateko.

UEZaren araberako plangintza hidrologikoaren prozesuaren lehen aldia mugaketa hidrografikoen karakterizazioa egitea eta babesguneak UEZaren 5 eta 6. artikuluetan ezarritakoari jarraiki erregistratzea izan da.

Euskadiko Barne Arroetan lan horiek berariazko txosten osatu batean gauzatu ziren (2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentzarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena. Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen Mugaketa; Ingurumen eta Lurralde



Antolamendu Sailaren web-orrian – [www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net)- eskuragarri dago). Karakterizazioa arroaren ingurune urtarraren deskribapen bat izan zen, uraren erabilera ekonomikoaren eta bertan egindako prozesio antropikoen inguruko analisia barne, bai eta UEZaren helburuak ez lortzeko arriskuaren ebaluazioa ere. Lanak 2004ko abenduan amaitu ziren eta horien emaitzak Europako Batzordeari 2005eko ekainean helarazi zitzaizkion.

Hala eta guztiz ere, lanak ikuspegi eta xehetasun-maila berarekin zabaldu ziren EAEko gainerako lurraldeetara; esparru horietan Uren gaitako eskumena Iparraldeko eta Ebroko Ur

Konfederazioei dagokie. Erakunde horiek lan horiek kontuan hartu zituzten Iparraldeko eta Ebroko Mugaketak egiteko, hurrenez hurren.

Karakterizazio-lanak amaitu ondoren, plangintza-zereginekin jarraitu behar da 2009rako mugaketa bakoitzaren Plan Hidrologiko bat egiteko, UEZak bere 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Plan hori da UEZaren aplikazioaren ardatz nagusia, ingurumen-helburuak lortzeko aurreikusitako kudeaketa-tresna nagusia eta UEZaren ezarpenaren inguruko informazioa eta jakinarazpena Europako Batzordeari eta publikoari helarazteko tresna nagusia delako.

## 2. AGIRI HONEN EDUKIA

Agiri hau, **URAREN ESPARRU ZUZENTARUAAREN PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROGRAMA, EGUTEGIA ETA FORMULAK** izenburua duena, eragindako administrazio publiko guztiei eta UEZaren Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen plangintza hidrologikoaren prozesuan interesa duten publiko/eragileei zuzentzen zaie (1. irudia), prozesuaren ezaugarrien eta bertan parte hartzeko tresnen berri emateko helburuarekin.

Hauek dira dokumentuaren edukiak:

- Mugaketaren Plan Hidrologikoa egiteko prozesuaren derrigorrezko epeak eta gertaera eta aldi nagusiak;

- Plan Hidrologikoaren edukia eta irismena;
- neurrien programaren edukia eta irismena eta horren ezarpena;
- kontsulta-formulak, hau da, noiz eta nola egin behar den Plan Hidrologikoaren proiektu-proposamenari buruzko kontsulta publikoa;
- plangintza-prozesuaren programa eta egutegia;
- Plana onartu eta berrikusteko prozesua.

Dokumentu hau Uren Zuzendaritza Nagusiak (Ingurumen Ministerioa) 2006ko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren aldaketa biltzen duena, uren politikaren esparruan jarduera-esparru komunitarioa ezarri.

## 3. LEGE ESPARRUA

UEZaren plangintza hidrologikoaren prozesua zuzentzen duten lege-xedapenak hauek dira:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2006/60/EE Zuzentaraua, Ur-politikaren esparruan jarduketa-esparru komunitarioa, Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ), ezartzen duena.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Urei buruzko legearen testu bategina onartzen duena.
- 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, zerga, administrazio eta gizarte segurantzaren eta laneko

arriskuei buruzkoa, 129. artikuluan Urei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren aldaketa biltzen duena, uren politikaren esparruan jarduera-esparru komunitarioa ezarri.

- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua (prestaketa-prozesuan).



## 4. PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUA. OROKORTASUNAK

UEZak 2009. urterako Mugaketa Hidrologiko bakoitzerako plan hidrologiko bat (aurrerantzean PH) egitea eskatzen du. PH horrek gutxienez ondoko elementuak bildu behar ditu (UEZaren VII. eranskina):

- Mugaketa hidrografikoaren ezaugarrien deskribapen orokorra
- Giza jarduerak uren egoeran izango dituen presio eta eragin nabarmenen laburpena
- Babestutako zonak identifikatu eta mapak egitea
- Ezarritako kontrol-sareen mapa
- Azaleko uretarako, lur-azpiko uretarako eta zona babestuetarako ezarritako ingurumen-helburuen zerrenda
- Uraren erabileraren azterketa ekonomikoaren laburpena
- Hartutako neurri-programaren edo programen laburpena, ezarritako helburuak lortzeko moduak bilduko dituen
- Programa eta plan hidrologiko zehaztueneren erregistroa
- Hartutako jendaurreko erakustaldiko eta kontsultako neurrien, horien emaitzen eta ondorioz planean egindako aldaketen laburpena
- Agintari eskudunen zerrenda
- Oinarrizko dokumentazioa eta informazioa lortzeko harreman-puntu eta -prozedurak

PHa mugaketa hidrografikoaren mailako plan estrategikoa da, mugaketa horretan uraren kudeaketa eraginkor eta iraunkorrerako eta ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko beharrezko elementu guztiak bildu behar dituen, aurrez adierazitako gutxienezko edukia jarraiki. Baina Europako Batzordeari UEZaren ezarpen-maila jakinarazteko tresna bat ere bada.

PHa 2009an amaitu behar da, baina UEZak 6 urteko zikloak dituen plangintza hidrologikoaren prozesu bat ezartzen du, hau da, PHak 2015ean berrikustea eskatzen du, ondoren 2021ean, sei urtero. Beraz, iterazio-prozesu bat da.

UEZaren arabera plangintza hidrologikoaren prozesuan PHaz gain beste elementu batzuek ere hartzen dute parte:

- **Uren kudeaketako gaitan garrantzitsuak diren gaien eskema.** Dokumentu hori mugaketaren karakterizazioaren (2004an egina) eta PH proiektuaren (oraindik egin gabea) tarteko aldia da. UEZaren balizko inplikazioen inguruko ikuspegi orokorra eman behar du, arreta benetan esanguratsuak diren gaitan jarriz, eta laburra eta motza izan behar du. 2007an egin behar da.
- **Neurrien programa.** Neurrien Programak UEZaren helburu guztiak lortzeko beharrezko tresnak bildu behar ditu (legeria, tresna ekonomikoak, jardunbide egokiko kodeak, akordio eta hitzarmenak, uraren erabileraren eraginkortasunaren sustapena, hezkuntza-proiektuak, ikerketa-proiektuak, etab.), babestutako zonei buruzkoak barne; hori guztia Uraren Testu Bateginean (92 quater art., 3) eta EAEko Uraren Legean (24. artikulua) bildurikoari jarraiki. Neurrien Programa Gai Garrantzitsuen Eskemarekin eta PHarekin batera egin behar da, Neurrien Programaren laburpena PHan sartzeko.
- **Xehetasun Plan edo Programak.** Ur-masan, esparru geografikoan, ekosisteman edo sektore ekonomikoan helburuak lortzeko komeni denean, Xehetasun Programak hartuko dira.
- **Ingurumen ebaluazio estrategikoa.** PHak dituen helburuen eta izaeraren ondorioz, plan hori ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri behar da, Espainiako estatuko legerian 9/2006 Legearen bitartez sartu zen 2001/42/EE Zuzentaruari jarraiki. PHaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidetzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, Ingurumen Ministeriori dagokio.
- **Parte-hartze publikoa.** UEZak bere 14.1 artikuluan eskatzen du estatu kideek UEZaren aplikazioan interesa duten alderdi guztien parte-hartze aktiboa sustatzea, eta, bereziki, plan hidrologikoak prestatu, berrikusi eta eguneratzerakoan. Horrek eragiten du Mugaketako agintari eskudunek UEZaren



ezarpenarekin erlazioan dutako administrazioekin eta publikoekin eta PHan interesa duten eragileekin batera lanean jardutea, UEZaren ingurumen-helburuak eta beste helburu sozial eta ekonomiko batzuk betetzen direna ziurtatzeko. Horrela bada, UEZak eta Uraren Legearen Testu Bateginak Gai Garrantzitsuen Eskema eta PHa

egiterakoan parte-hartze publikoa bermatzeko tresnak ezartzen dituzte.

Ondoko kapituluaz aztertzen da xehetasunez Euskadiko Barne Arroetako Plangintza Hidrologikokoaren prozedura.

Horretarako, xehetasun handiagoz deskribatzen dira Planaren garapenean parte hartzen duten elementuak eta Planaren erreferentzia-egutegia.

## 5. PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUA EUSKADIKO BARNE-ARROETAN

### 5.1. UREN KUDEAKETAKO GAI GARRANTZITSUEN ESKEMA

Uren Legearen Testu Bateginean ezarritakoari jarraiki (Hamabigarren xedapen gehigarria, 1.a) PHa onartzeko prozedura hasi baino gutxienez bi urte lehenago arroken organismoak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak, 2007ko ekainaren 30a baino lehen argitaratu beharko du arroken hidrografikoan uren kudeaketaren inguruan sortzen diren Gai Garrantzitsuen behin-behineko Eskema (1. taula). Eskema jendaurreko erakustaldian eta parte-hartze publikoan jarriko da.

Dokumentuaren edukia hau izango da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoan jorratu beharreko presio eta eragin nagusiak, ur-masak arriskuan jartzen dituzten sektore eta jarduerak barne (Diagnostikoa).
- Ingurumen-helburuen hasierako proposamena.
- Ingurumen-helburuak betetzeko aldaketak eta beharrezko neurrien programa nagusiak, kontrolekoak eta jarraipenekoak barne (Jarduera Ildo Nagusiak).
- Jarduera-ildoak prestatzeko beharrezko ekarpenak egiten dituzten sektore eta taldeak
- Beharrezko aldaketak lortzeko balizko eszenatokiak azalpen orokorra, horien karakterizazio ekonomikoa barne.

Eskema egiteko informazio tekniko eta ekonomikoa erabiliko da, ondoko datuak biltzen dituen:

- mugaketa hidrografikoaren karakterizazioaren txostena;
- mugaketa hidrografikorako helburuak ezartzeko prozesuaren hasierako aldiak;
- informazioko edo ikuspegiko hutsuneak identifikatzen lagunduko duen atariko kostu-eraginkortasunaren azterketa;
- mugaketa hidrografikoan ur-masak arriskuan jartzen dituzten sektore eta jardueren azterketa.

Eskemak funtsezko gaiak azpimarratu eta plangintza hidrologikoan interesa duten alderdi guztien prozesuko parte-hartzea lagundu nahi duenez, Uren Zuzendaritzak eskemaren prestakuntzan zuzenean edo zeharka ingurumen-helburuak lortzen lagundu behar duten eragile guztiak bildu beharko ditu. Horretarako, dokumentu hori parte-hartze publikoan jarriko da 5.6 atalean deskribatutako prozedurari jarraiki.

Prozedura horrek hiritarrek parte hartzeko aukera bermatzen du web-ingurunearen bitartez, bai eta interesa duten eragileen parte-hartzea ere, arroaren mailan eta sektoreetako gaien mailan irekitako foroaren bitartez.

Kontsulta eta parte-hartze publikoko epea ez da sei hilabete baino gutxiagokoa izango.

Gai Garrantzitsuen Eskemaren parte-hartze publikoko aldia amaitutakoan (2007ko abendurako aurreikusitakoa), Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak dokumentua EAEko Uraren



Kontseiluari igorriko dio, balizko aldaketen ondoren,

2008ko urtarrilaren 31 baino lehen onar dezan.

## 5.2. EUSKADIKO BARNE ARROEN PLAN HIDROLOGIKOA

### 5.2.1 PLAN HIDROLOGIKOAREN PRINTZPIOAK ETA EDUKIA

Aurrez aipatu den moduan, Plan Hidrologikoa da mugaketa hidrografikoan, UEZaren printzipio eta helburu orokorreari jarraiki, uraren kudeaketa eraginkor eta iraunkorrerako helburu eta estrategiak zehaztu behar dituen dokumentua. Beraz, Plangintza Hidrologikoaren ardatza da.

Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoa EAEko Administrazio Hidraulikoak egingo du (ziurrenik Uraren Euskal Agentziak egingo du, berriki onartutako EAEko Uraren Legeak 2008an sortzea aurreikusten baitu<sup>1</sup>) Uraren Kudeaketako Gai Garrantzitsuen inguruko dokumentuan oinarrituta eta, UEZaren berezko ingurumen-helburuez gain, plangintza hidrologikoarekin erlazionatutako beste plan, programa eta estrategiak kontuan izango ditu, bai eta beste Administrazioen eskumenekoak direnak ere, baita ingurumen-helburuak lortzeko neurri desberdinen kostuaren eta konbinazioari buruzko informazio ekonomikoarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoak Uraren Legearen Testu Bateginaren 42. artikuluan zehaztutako informazioa bildu behar du; laburbilduz, hau da informazioa:

- Mugaketa hidrografikoaren deskribapen orokorra:
  - Azaleko ur-masa kontinentalen mugak eta kokapena.
  - Azaleko ur-masen motak eta erreferentziako baldintzak.
  - Lurpeko ur-masen mugak eta kokapena.
  - Ur-masen egoera, adierazleetan oinarrituta.
  - Azaleko eta lurpeko ur-baliabideen inbentarioa.
- **Erabilera eta presioen** deskribapen orokorra:

- Erabilerak eta eskaerak, egungo eta etorkizuneko beharren identifikazioa barne, eskaeraren, berrerabileraren eta erabilera eraginkorraren kudeaketa egokiaren ikuspegitik.
- Aukera desberdinen aurreko baliabide eta eskaeren arteko balantzea eta beharrezkoak diren oinarritzko egitura eta jardueren definizioa.
- Giza jarduerak uren egoeran izango dituen presio eta eragin nabarmenenak.
- Erabileren arteko lehenetasuna, bateragarritasuna eta lehenetasun-ordena.
- Ur-baliabideen esleipena eta erreserba.
- Uraren erabileraren azterketa ekonomikoaren laburpena eta planaren eta horren finantzaketaren **azterketa ekonomikoa** kostu-eterkinaren azterketaren ikuspegitik, ingurumen-kostuak barne, eta kostuen berreskurapen-printzipioaren ikuspegitik.
- **Babestutako zonen** identifikazioa eta mapak
- Ur-ingurunearen egoeraren jarraipenerako ezarritako **kontrol-sareak**
- **Ingurumen-helburuen** zerrenda, balizko salbuespenak eta horien justifikazioa barne.
- Neurrien Programaren laburpena.
- Hala badagokio, Programa eta Plan hidrologiko zehaztuagoak.
- Hartutako **jendaurreko erakustaldiko** eta kontsultako neurrien laburpena, horien emaitzen eta ondorioz planean egindako aldaketen laburpena.
- Agintari eskudunen zerrenda.
- Oinarritzko dokumentazioa eta informazioa lortzeko **harreman-puntu** eta prozedurak.

<sup>1</sup> Aurrerantzean, dokumentu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren kontseiluari erreferentzia egiten zaionean ulertuko da, erakunde hori sortu bitarte, EAEko Administrazio Hidraulikoarekin bat datorrela.

Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren edukia egun prestaketa-aldian dagoen Plangintza Hidrologikoko Errege Dekretu berrian ezarritakoari egokituko zaio.





### 5.2.2 INGURUMEN HELBURUAK, HELBURU ALTERNATIBOAK ETA SALBUESPENAK

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren funtsezko ataletariko bat ingurumen-helburuen definizioarena izango da. Horiek orokorrean definitzen dira UEZan eta Uraren Legearen Testu Bateginean eta EAEko Uraren Legean sartuta daude. UEZaren 4. artikuluan ezarritako ingurumen-helburuak honela taldeka daitezke:

Azaleko urak	Lurpeko urak
Ez narriatzeko helburua	Ez narriatzeko helburua
Egoeraren inguruko helburuak	Egoeraren inguruko helburuak
Lehentasunezko substantziak eta lehentasunezko substantzia arriskuak ezabatu/murritzeari buruzko helburuak.	Kutsadura prebenitu edo mugatzeko helburuak
Babestutako zonen helburuak, egoki bada.	Babestutako zonen helburuak, egoki bada Joerak alderantzizatzeko helburua

Helburu orokor horiek beti bete behar dira, UEZaren baldintzatzaile eta eskakizunei jarraiki besterik justifikatu ezean.

UEZaren 4. artikulua ezartzen ditu, baldintza jakinetan, Estatu kideak ezarritako helburuak betetzetik desbidera daitezkeen berariazko egoerak (adibidez, 2015era bitarteko egoera ona). Orokorrak ez diren helburuei hautazko helburu deitzen zaie.

Hautazko helburuak erabiltzea da UEZan, besteak beste, uraren kudeaketako lehentasunak ez diren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-lehentasunak kontuan hartzeko eta helburu jakin

batzuk lortzeko epea atzeratu ahal izateko erabilgarri dagoen tresna.

Proposa daitezkeen hautazko helburu-motak hauek dira:

- epearen luzapena;
- hain zorrotza ez den helburua;
- oso aldatuta dauden edo artifizialak diren ur-masentzako helburu desberdinak; edo
- helburu desberdinak, ur-masa baten ezaugarri fisikoen aldaketa berrien edo garapen iraunkorreko giza jarduera berrien kasuan.

UEZaren 47.6 eta 47.7 artikuluen ondoriozko salbuespenei dagokienez (adib.: lehorte luzeak, garapen berriak), plangintza-prozesuak ahalizaten berezi bat egin beharko du plangintza-zikloan zehar gerta daitezkeen balizko aldaketak aurreikusteko. Bereziki, hainbat urtetako lehorte bat gertatzeko aukera aurreikusi eta horrek UEZaren ingurumen-helburuetan izango dituen eraginak minimizatzeko prebentzio-neurrien konbinazioak aplikatu beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoa garatzeko, Uraren Euskal Agentziak UEZaren helburuen zati integrala diren hautazko helburuak guztiz erabil ditzake. Horien erabilera normalizat jo behar da plangintza-prozesuan, baina egoera oneko helburu guztiak ez lortzearen abantaila eta desabantaila guztiak kontuan izan behar ditu.

### 5.2.3 PLAN HIDROLOGIKOAREN ESPARRUA ETA PRESTAKETA PROZESUA

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoa Euskadiko Barne Arroen mugaketa hidrografikorako idatziko da (1. irudia) eta, Uraren Legearen Testu Bateginean ezarritakoaren arabera, 2009an onartuta egon beharko du. UEZak, ezarritako sei urteko zikloaren arabera, lehen berrikuspena 2015erako ezarriko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoa bi alditan prestatzea proposatzen da (1. taula):

#### PLAN HIDROLOGIKOAREN PROIEKTUA

EAEko Administrazio Hidraulikoak Plan Hidrologikoaren Proiektu-proposamena Uren

Kudeaketako Gai Garrantzitsuen inguruko azken dokumentuan oinarrituta idatziko du. Besteak beste, gai hauek izango ditu kontuan:

- Plangintza hidrologikoarekin erlazionatutako beste plan, programa eta estrategia batzuk, administrazio eskudunak eman beharrekoak.
- Ingurumen-helburuak lortzeko neurri desberdinen kostuari eta konbinazioari buruzko informazio ekonomikoa, hau da, Presioa-Eragina-Kostua-Eraginkortasuna metodologiaren aplikazioa. Metodologia horiek Gai Garrantzitsuen Eskemaren eta Plan Hidrologikoaren prestakuntzarekin batera



garatu beharko dira, Neurrien Programaren definizioaren esparruan.

- Proposatutako helburuak justifikatzeko berariazko azterlanak sartzea, arreta berezia jarriz helburu orokorren balizko salbuespenetan (asko aldatutako ur-masak, hain zorrotzak ez diren helburuak, epeen salbuespenak).
- UEZa Euskadiko Barne Arroetan ezartzeko aukera bat baino gehiago kontuan hartzea. Aukerak plangintza hidrologikoko jardueren eskalaren eta mailaren eta kostuen eta etekinen balantzeen inguruko erabaki nagusiak islatu beharko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikokoaren Proiektuaren proposamena 2008ko ekainaren 30a baino lehen argitaratu beharko litzateke, jendaurreko erakustaldiko eta parte-hartzeko aldiak jartzeko. Kotsultako eta parte-hartzeko printzipio eta tresnak Gai Garrantzitsuen Eskemarako proposaturikoen antzekoak izango dira. Kotsultako epea ez da sei hilabete baino gutxiagokoa izango.

Parte-hartze publikoko aldia amaitutakoan dokumentua etorkizuneko Uraren Euskal Agentziaren organoei igorriko zaie, balizko aldaketan ondoren, 2009ko ekainaren 30a baino lehen onar dezaten. Planaren proposamenaren azken idazketak kontuan izango du Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozesuan aldi berean egindako Ingurumen Memoria (1.1 atala).

#### PLAN HIDROLOGIKOAREN ONESPENA

Plan Hidrologikokoaren Proiektua Estatuko Gobernuari aurkeztuko zaio Ingurumen

Ministerioaren bitartez, uren legearen 35.2 artikuluari jarraiki.

Horretarako, Plan Hidrologikokoaren proiektuaren bertsio sinplifikatu bat egingo da, UEZaren ezarpenaren ikuspegi bakarria bildu eta helburuen justifikazioaren xehetasunak alde batera utziko dituen, nahiz eta helburu horien eta, hala badagokio, erabilitako hautazko helburuen justifikazioaren zerrenda bilduko dituen. Planaren bertsio horrekin batera Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ingurumen-memoria ere igorriko da.

Erregelamenduaren 77. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki egindako Planaren proiektua Ingurumen Ministerioaren bitartez Uraren Kontseilu Nazionalari igorriko zaio, Uren Legearen 20. artikuluan aurreikusitako derrigorrezko txostena egin dezan.

Txosten hori emandakoan, Ingurumen Ministerioak Estatuko Gobernuari aurkeztuko dizkio plan hidrologikokoak, egoki bada onar ditzen.

Gobernuak, Errege Dekretu bidez, plan hidrologikokoak onartuko ditu interes orokorren arabera egoki deritzen baldintzetan, hurrengo atalean ezarritakoaren kalterik gabe (Uraren Legearen Testu Bateginaren 40.5 artikulua). Onespenez 2009ko abenduaren 31 baino lehen jaso beharko litzateke.

Uren Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren babesean egin edo berrikusi diren plan hidrologikokoak Uren Legearen 40.1, 3 eta 4 eta 42. artikuluetako aginduetara egokitu, beste arrotzat baten baliabideei eragiten ez eta, hala badagokio, Plan Hidrologikoko Nazionalaren xedapenetara egokitzen badira onartuko dira (Uraren Legearen Testu Bateginaren 40.6 artikulua).

### 5.3. NEURRIEN PROGRAMA

#### 5.3.1 NEURRIEN PROGRAMAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Neurrien programak aurrez Euskadiko Barne Arroetarako ezarritako UEZaren helburu guztiak lortzeko beharrezko neurriak bildu beharko ditu, babestutako zonen inguruko helburuak barne. Beste plangintza-prozesu horien (lurraldekoa, ingurumenekoa, etab.) neurriak ere sartuko dira,

baina multzoak UEZaren berariazko helburuak ere biltzen dituenaren kasuan bakarrik.

**Neurria** UEZaren helburuak lortzeko erabil daitekeen edozein motako tresna gisa definitzen da, legerian, agiri ekonomikoetan, jardunbide egokiko kodeetan, akordio eta hitzarmenetan, uraren erabilera eraginkorren sustapenean, hezkuntza-



proiektuetan, ikerketa, garapen eta erakustaldiko proiektuetan ezarritako eskakizunak kasu.

Neurriak oinarrizkoak eta osagarriak izango dira (Uraren Legearen Testu Bateginaren 92 quater artikulua, 3). Oinarrizko neurriak mugaketa bakoitzean bete behar diren gutxieneko eskakizunak dira eta Erregelamenduaren 42-51. artikuluetan ezartzen dira. Neurri osagarriak kasu bakoitzean ingurumen-helburuak edo uren babes gehigarria lortzeko izaera gehigarriarekin aplikatu beharko direnak dira.

UEZaren VI. eranskinean daude programan bildu behar diren neurrien zerrenda irekiak:

- Oinarrizko neurriak: Jarrain adierazten diren zuzentzaruetan eskatutako neurriak:
  - Bainu-urei buruzko zuzentzaraua (76/160/EEE)
  - Basa-hegaztien babesari buruzko zuzentzaraua (79/409/EEE)
  - Giza kontsumorako urei buruzko zuzentzaraua (80/778/EEE), 98/83/EE Zuzentzarauak aldatutakoa
  - Arrisku larriei buruzko Zuzentzaraua (Seveso) (96/82/EE)
  - Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko Zuzentzaraua (85/337/EEE)
  - Arazketako lohiei buruzko Zuzentzaraua (86/278/EEE)
  - Hondakin-uren tratamenduari buruzko Zuzentzaraua (91/271/EEE)
  - Produktu fitosanitarioen merkaturatzeari buruzko Zuzentzaraua (91/414/EEE)
  - Nitratoei buruzko Zuzentzaraua (91/676/EEE)
  - Habitat naturalei buruzko Zuzentzaraua (92/43/EEE)
  - Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko Zuzentzaraua (96/61/EE).
  - Urarekin erlazioa duten eta UEZa baino beranduago onartu diren beste zuzentzarau batzuk
- Neurri osagarriak:
  - Legegintzako agiriak
  - Administrazioako agiriak

- Ekonomiako edo zergetako agiriak
- Ingurumen-gaietan negoziatutako akordioak
- Igorpen-kontrolak
- Jardunbide egokien kodeak
- Hezeguneen lehengoratzea
- Erauzketen kontrola
- Eskaearen kudeaketa-neurriak, besteak beste, nekazaritza-ekoizpen egokitua sustatzea, lehorteak eragindako guneen ur-behar baxuko laborantza kasu.
- Eraginkortasun eta berrerabilera neurriak, besteak beste, industrian eraginkortasun hidraulikoko teknologiak eta ura ekonomizatzeko urreztapen-teknikak sustatzea
- Eraikuntza-proiektuak
- Gatzgabetzeko plantak
- Berriz eratzeko proiektuak
- Akuiferoen elikadura artifiziala
- Hezkuntza-proiektuak
- Ikerketa-, garapen- eta erakusketa-proiektuak
- Egoki diren beste neurri batzuk.

Beste alde batetik, Euskadiko Uren Legean zehazten da neurrien programak dokumentu hauek bilduko dituela:

- Dauden ur-baliabideen inbentarioa, kalitatearen eta kantitatearen arabera.
- Uraren azterketa ekonomikoa, ondasunaren kudeaketa-zerbitzuen kostuak berrekuratzerazuzendurikoa, kutsatzen duenak ordaintzearen printzipioaren aplikazioa bermatuz. Azterketa ekonomikoa orokorrean eta sektoreka egingo da, gutxienez, etxekoa, industriakoa eta nekazaritzakoa hartuz kontuan. Azterketa hori ingurumen-kostuak berreskuratzerazuzenduko da.
- Uraren erregulazioko eta kudeaketako politikaren inguruan sentsibilizatu eta prestatzerazuzenduriko ekimenak.
- Arro desberdinetan egin beharreko obra hidraulikoak edo hornidura-, saneamendu- eta



arazketa-zerbitzuak ematearen ondoriozkoak. Jarduketan finantziarioko aurreikuspenak.

- Herrietako hornidura.
- Hargune eta isurketen kontrolerako tresnak.
- Uraren erabilerako aurrezki, optimizazio eta hobekuntzarekin erlazioatutako neurriak.
- Sektore desberdinetako hondakin-uren saneamendu eta arazketa.
- Hondakin-uren araztegiatako uraren berrerabileraren erregimen juridikoa eta kudeaketa.
- Uren, bereziki hondakin-uren, kudeaketako estazioetan sortutako hondakinen erregulazioa eta kudeaketa.
- Euri-urak biltzeko sistemaren aurreikuspena.
- Emari ekologikoen erregimen juridikoa.
- Uren kalitatea babestu eta hobetzeko politika.
- Ur-ingurunearekin erlazioatutako ekosistemak babestu eta hobetzeko politika.
- Babestutako zonen erregistroa ezartzea.
- Uholdeen eta hondamendien aurkako prebentzio- eta defentsa-neurriak, bai eta istripuzko kutsadura-eraginaren aurkakoak ere.
- III. kapituluaren ezarritako helburuak lortzeko hartzen diren neurriak, bereziki UEZaren VI. Eranskinean aurreikusitakoak.

Nahiz eta neurrien programa definitu eta prestatzearen arduradun EAeko administrazio hidraulikoa izango litzatekeen (eta aurreikusitako epeen ondorioz, etorkizuneko Uraren Euskal Agentzia), programak beste administrazio batzuen eskumenekoak izango diren hainbat neurri izango

### 5.3.2 NEURRIEN PROGRAMA ABIAN JARTZEA

Neurrien programa egiteaz gain, Uraren Euskal Agentziak bere ardurapekoak diren neurriak aplikatzen direla ere ziurtatu beharko du neurrien programa 2012ko abenduaren 31 baino lehen martxan egon dadin (Hamabigarren xedapen iragankorra, 2.b, Uraren Legearen Testu Bategina).

ditu. Horrela, arroaren plangintza-prozesuan, Agentziak inplikaturako gainerako administrazioekin batera lan egin beharko du programan ingurumen-helburuak lortzeko zein neurri-konbinazio ezarriko den eta neurri horien ezarpena gertatu eta kontrolatzeko zein motako tresnak beharrezkoak diren erabakitzeko.

Neurrien programak UEZaren helburuak betetzeko beharrezko neurri guztiak bildu beharko ditu, iraupena alde batera utzita. Helbururen bat lortzeko 6 urteko plangintzaren lehen zikloa baino haratago doan epe luzatu bat behar duenean, neurrien programak neurri guztiak bildu beharko ditu, bai eta 6 urte baino iraupen luzeagoa duten horiek ere.

Neurri desberdinak maila ezberdinetan aplikatuko dira: tokikoa, udalerrikoa, lurraldekoa, arrokoa edo mugaketa hidrografikokoa. Neurriak edozein esparrutan aplikatu ahal izango dira, ez ur-masetan bakarrik (adibidez, nekazaritzan edo lurzoruen erabileran aldaketak behar izatea gerta daiteke).

Neurriak diseinatzeko, abiapuntu gisa, badauden neurrien karakterizazio ekonomikoak hartuko dira kontuan, bereziki UEZaren ezarpeneko lantaldeek estatutan egindakoak.

Aurrez 1.1 atalean adierazi den moduan, Uraren Euskal Agentziak jendaurerako erakustaldian jarriko duen Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren proiektuak UEZa mugaketa hidrografikoan ezartzeko eszenatoki edo aukera bat baino gehiago bildu beharko ditu. Planaren proiektuan bilduko den neurrien programaren laburpenak ere bildu beharko ditu eszenatoki horiek.

Programan bildutako beste administrazioen ardurapekoak diren neurriei dagokienez, Uraren Euskal Agentzia erakunde horiekin koordinazioan jardungo da neurri horiek martxan jartzen direla ziurtatzeko.



### 5.3.3 NEURRIEN PROGRAMAREN APLIKAZIO MAILARI BURUZKO TARTEKO TXOSTENA

Estatu kideek Europako Batzordeari "aurreikusitako neurrien programaren aplikazio-maila adieraziko duen tarteko txosten bat" aurkeztuko diote 2012ko abenduaren 22a baino lehen (UEZaren 15.3 artikulua).

Euskadiko Barne Arroen kasuan, txosten horrek Uraren Euskal Agentziak eta beste administrazio batzuek neurrien programa martxan egon dadin

egindako aurrerapena deskribatu beharko du. Arreta, nagusiki, hartutako neurrien programaren laburpenean (Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoan bildua) zehaztu ziren neurrietan jarriko du eta aipaturiko laburpenetik egindako edozein aldaketa azaldu eta justifikatu beharko du.

## 5.4. XEHETASUN PLAN EDO PROGRAMAK

Egoera batzuetan beharrezkoa izan daiteke plan edo programa osagarri gehigarriak eta zehatzagoak egin behar izatea gai hauen inguruan:

- tipologia bereziren bateko ur-masak;
- zona murriztagoak, adibidez, arro bat edo azpiarro bat;
- ingurumenaren edo ur-kudeaketaren alderdi bereziak;
- uraren erabilera-mota jakin batzuk.

Plan osagarriak egitea erabakitzen bada, UEZak eta Uraren Legearen Testu Bateginak eskakizun batzuk betetzea eskatzen dute:

- Arroko erakundeak publikoari kontsultatu behar dio planak prestatzeko prozesuan zehar eta emandako iritziak kontuan izan behar ditu.
- Erakunde publikoek plan horiek kontuan hartu beharko dituzte mugaketa hidrografikoari eragiten dioten funtzioak betetzen dituztenean.

- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoan plan osagarrien erregistro bat bildu beharko da.
- Uraren Euskal Agentziak plan osagarrien aleak eduki beharko ditu bere bulego nagusietan.

Plan osagarri baten garapena proposatzen denean, arroko erakundeak kontuan izan beharko du horiek UEZan beharrezkoak ez direna eta, ondorioz, plan osagarriak egin eta eguneratzeak eragiten dituen kostuaren eta baliabideen beharraren aurrean eskaintzen dituen balizko etekinak haztatu beharko ditu. Plan osagarriak egiten direna edo ez direna alde batera utzita, plana UEZan, Uraren Legearen Testu Bateginean, EAEko Uraren Legean eta etorkizuneko Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan ezarritakoari egokitu beharko zaio.

## 5.5. INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

### 5.5.1 EBALUAZIO PROZESUAREN PROPOSAMENA

UEZaren plangintza-prozesuaren arabera egindako Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoak, dituen helburu eta izaeragatik, "ingurumenaren gainean eragin nabarmena" izango du eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri beharko da, Espainiako estatuko legerian 9/2006 Legearen bitartez sartu zen 2001/42/EE Zuzentzarauari jarraiki. Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioa Ingurumen Ministerioaren bitartez egingo da.

Lege hori betetzeko, arroko erakundeak honako hauek egin beharko ditu:

- arroaren plangintza-prozesuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren balizko eragin nabarmenen ingurumen-ebaluazioa egin, proposa daitezkeen alternatibak ere bilduta;
- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren proiektuari buruzko



kontsulta egin eta, Ingurumen Ministerioarekin batera, ingurumen-ebaluazioa bilduko duen txosten bat prestatzea;

- ebaluazio horren eta kontsultaren emaitzak kontuan izatea Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren behin betiko bertsioa egiterakoan;
- ingurumen-hausnarketak eta kontsultaren emaitzak nola sartu direnaren berri ematea plana onartzeko prozesuan zehar.

Esplizituki, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak ondoko jarduerak bilduko ditu:

- Ingurumen-organoari (Ingurumen Ministerioa) hasieran jakinarazi eta **hasierako dokumentuak** egitea.

### 5.5.2 INGURUMEN IRAUNKORTASUNEN TXOSTENA

**Ingurumen-iraunkortasuneko** txostena da ingurumen-ebaluazioaren prozesuko lehen dokumentu garrantzitsua. Bertan identifikatu, deskribatu eta ebaluatu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren aplikaziotik ondoriozta daitezkeen ingurumenaren gaineko balizko eragin nabarmenak, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren alternatibak barne (horien artean zero alternatiba).

9/2006 Legearen I. eranskinaren arabera, txostenaren gutxienezko edukia hau izango da:

- Edukiaren zirriborro bat, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren edo programaren helburu nagusiak eta lotutako beste plan edo programekin duen erlazioa.
- Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak eta plana aplikatuko ez balitz izan lezakeen bilakaera.
- Nabarmen eragin daitezkeen zonen ingurumen-ezaugarriak, bereziki ur-masen egoera, bai eta lotutako ur-ekosistemena ere.
- Planerako garrantzitsua den edozein ingurumen-arazo, babestutako espazio natural eta espezieei buruzko legeria aplikagarriari jarraiki izendatutako ingurumen-garrantzi berezia duen edozein zonarekin erlazionaturikoak barne. Bereziki kontuan izango dira espazio eta espezieen uren

- **Ingurumen-iraunkortasuneko txostena** egitea.

- **Kontsulta** publikoak

- **Ingurumen-memoria** egitea.

- Ingurumen-iraunkortasuneko txostena, kontsulten emaitzak eta ingurumen-txostena erabakiak hartzerakoan kontuan izatea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren eta Neurrien Programaren onespenerari buruzko informazioaren publikotasuna.

Eskakizun horien guztiak Euskadiko Barne Arroen plangintza-prozesuan sartu behar dira.

kantitatearen eta kalitatearen inguruko ingurumen-eskakizunak.

- Nazioartean, Batasunean edo Estatuan ezarritako ingurumen-babeseke helburuak, planarekin eta hori prestatzerakoan helburu horiek eta edozein ingurumen-alderdi kontuan hartu diren moduarekin erlazioa dutenak.
- Ingurumenaren gainean izan daitezkeen eraginak, biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, faktore klimatikoak, ondasun materialak, kultura-ondarea (ondare historikoa barne), paisaia eta faktore horien arteko erlazioa bezalako alderdiak barne.
- Planaren aplikazioak ingurumenaren gainean izan dezakeen edozein eragin negatibo prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian, horri aurre egiteko neurri gehigarriak.
- Aurreikusitako alternatibak aukeratzeko arrazoien laburpena eta ebaluazioa nola egin zenaren deskribapena, beharrezko informazioa biltzerakoan egon litezkeen zailtasunak barne.
- Jarraipen-programaren eta horren neurrien deskribapena.
- Aurreko paragrafoei jarraiki emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren eragin negatiboak



prebenitu, murriztu edo arintzera zuzendutako alternatiba eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Ingurumen-iraunkortasuneko txostena Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren parte izango da eta, publikoak eta

administrazio publikoek eskuratu eta ulertzeko modukoa izateaz gain, lotutako informazioaren laburpen ez-teknikoa izango du.

Dokumentu hori amaitzeko aurreikusitako behin-behineko epea 2008ko ekainaren 30a izango da (1. taula).

### 5.5.3 KONTSULTA ETA PARTE HARTZE PUBLIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren proiektuaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren kontsulten aldiak ondoko jarduerak dakartza:

- Publikoaren eskura jartzea.
- Eragindako administrazio publikoei eta publiko interesatuari kontsulta egitea.

Planaren kontsulta publikoaren iraupena, 9/2006 Legeari jarraiki, 45 egunekoa da. Hala eta guztiz ere, UEZak Planerako kontsulta eta parte-hartze publikoko exijentzia zorrotzagoak dituenez,

bat etorri araziko dira eta UEZak ezarritako iraupena izango dute.

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ondorioetarako, publiko interesatutzat joko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideko pertsona fisiko edo juridiko oro; eta egiaztatutako helburu gisa ingurumena edo horren elementuren bat babestea duen irabazi-asmorik gabeko edozein pertsona, planak helburu horiek eragiten baditu eta gutxienez bi urte bada legez eratuta dagoela.

### 5.5.4 INGURUMEN MEMORIA

Kontsulten aldia amaitutakoan, eta Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenean oinarrituta, **ingurumen-memoria** egingo da ingurumen-alderdiak planaren edo programaren proposamenean sartu direna balioztatzeko eta ebaluazio-prozesua, ingurumen-iraunkortasuneko txostena eta horren kalitatea aztertuko dira eta egindako kontsulten emaitza eta kontuan nola hartu diren ebaluatuko da eta Plan Hidrologikoa

aplikatzearen eragin esanguratsuen aurreikuspena aztertuko da.

Ingurumen-memoriak Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoan sartu beharreko azken xedapenak bilduko ditu.

Dokumentu hori amaitzeko aurreikusitako behin-behineko epea 2009ko urtarrilaren 31a izango da (1. taula).

## 5.6. EUSKADIKO BARNE ARROETAKO PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZE PUBLIKOKO FORMULAK

### 5.6.1 PARTE HARTZE PUBLIKOA PLANGINTZA HIDROLOGIKOAN. PRINTZIPIOAK, ESKAKIZUN OROKORRAK ETA PARTE HARTZE MAILAK

UEZak bere 14.1 artikuluan eskatzen du estatu kideek UEZaren aplikazioan interesa duten alderdi guztien parte-hartze aktiboa sustatzea, eta, bereziki, plan hidrologikoak prestatu, berrikusi eta eguneratzerakoan. Horrela, arroko organismoa da UEZa mugaketa hidrografikoan ezartzearen arduradun eta plan hidrologikoa eragindako jarduera edo interesak dituzten eragile guztiekin eta planean ezarritako helburuak betetzeko beharrezko

parte-hartzea duten eragile guztiekin batera lan egin beharko du.

UEZak zehazten du Estatu kideek bermatu behar dutela ondoko dokumentuak argitaratu eta publikoaren eskura jartzen direna, erabiltzaileen eskura barne, haien oharrak biltzeko.



- **Lan-egutegia eta -programa** (dokumentu honen xedea), planaren prestaketari buruzkoa, gutxienez, plana hasi baino hiru urte lehenago.
- **Gai garrantzitsuen eskema**, gutxienez, planak erreferentzia egiten dion aldia baino bi urte lehenago.
- **Plan hidrologikoaren** aleak, gutxienez, planak erreferentzia egiten dion aldia baino urtebete lehenago.

Plangintza hidrologikoko parte-hartze publikoaren printzipiorik garrantzitsuenak hauek dira:

- Elkarrizketa eta bitartekotza sustatzea, plan hidrologikoa egiteko estrategia gisa.
- Jarrera guztien legitimitatea aitortzea.
- Uraren kudeaketarekin erlazionaturiko protagonista guztien artean eszenatoki komun bat ezartzea, interes komunak azpimarratu eta gatazkei aurre egiteko bide egokiak sortuz.
- Prozesuan zehar ateratako ondorioak foro garrantzitsuetan aurkeztea.
- Autonomia Erkidegoko eta Estatuko erakundeak Planaren prestaketan inplikatzeko.
- Botere publikoen eta sozietate zibilaren arteko osagarritasun-politiketan sakontzea, ahalik eta gehien informatzetik eta jarreraren errespetutik abiatuta.

Beste alde batetik, ur-ingurunearekin erlazionaturiko eragileek eta publikoak orokorrean parte hartu duen plangintza hidrologikoaren prozesu batek, eta parte-hartze publikoak orokorrean, balio erantsi garrantzitsuak eskaintzen ditu:

- Arro hidrografikoen mailan uraren kudeaketan gakoak diren gaiak egoki identifikatzeko aukera gehiago daude, bai eta horien artean adostasun batera iristekoak ere.
- Tokiko komunitateen ezagutza, esperientzia, itxaropenak eta ardurak hasieratik sartzen dira "egoera ekologiko onerako" beharrezkoak diren plan hidrologikoetan eta neurrien programetan.
- Litekeenagoa da, politikoki eta kulturaliki, neurrien programa errealistagoa eta gizarte guztiarentzako onargarriagoa izatea.
- Balizko gatazkak ebatzi, murriztu eta desagerrarazten laguntzen da.

- Proposatutako ekimenak (hala erregulatuzaileak nola borondatezkoak) beteko direnaren berme handiagoa dago horiek alderdi interesatuen parte-hartzeko adostasunetik egin badira.

UEZaren plangintza-prozesuko parte-hartze publikoa publikoaren geroz eta inplikazio handiagoaren hiru mailetan ziurtatu beharko da:

- **Informazioa ematea.** Parte-hartzearen mailarik oinarrizkoena da; informazioaren eskuragarritasuna eskaini eta alderdi interesatuei aktiboki banatzea da.
- **Kontsulta publikoko prozesua.** Publiko orokorra zuzenean inplikatzeko suposatzen du, administrazioaren hasierako proposamenen aurreko erreakzioa izateko aukera eskainiz. Prozesu horretan zehar kontsultatutako eragileen komentario, esperientzia, iradokizun, pertzepzio eta ideiak bildu behar dira.
- **Parte-hartze aktiboa.** Plangintza hidrologikoaren prozesuko parte-hartze aktiboak tradizionalki uraren kudeaketan interes handiena izan duten alderdiak tartean sartzeaz gain, gizarte guztia ere sartu nahi du, berariazko foro edo lantaldeen bitartez.

UEZak lehen bi parte-hartzearen mailak ziurtatzea eta hirugarrena "sustatzea" eskatzen du. Maila horiek eta duten erlazio hierarkikoa jarraian azaltzen dira.

PARTE HARTZEAREN ONDORIOZKO PLANGINTZAREN MAILAK  
UEZan



UEZak lehentasunezkoztat hartzen du uraren kudeaketan gizarte guztiaren parte-hartze aktiboaren plangintza egiteko beharra (Hitzazurreko 14 eta 46. puntuak, 14. art. eta VII. eranskina, UEZ).

Ondoko ataletan aurkezten dira Euskadiko Barne Arroetako plangintza hidrologikoaren prozesurako diseinatutako kontsulta eta parte-hartze publikoko formulak.

Hala eta guztiz ere, UEZarekin erlazionaturiko gainerako lanen moduan, parte-hartzeko prozesu hori ez da dokumentu honek erreferentzia egiten dion Euskadiko Barne Arroen esparrurako bakarrik





diseinatu, EAE guztirako baizik, bere emaitzek arroko organismoek EAEko erkidegoen arteko arroen esparruan dituzten betebeharrak betetzen laguntzeko balio izateko.

Horrela, ondoko kontsulta eta parte-hartze publikoko prozedurak gure Erkidegoaren erkidego-arteko esparruari ere egiten dio erreferentzia.

## 5.6.2 LAN EGUTEGI ETA PROGRAMAKO KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA

**Lan-egutegi eta -programaren** kontsultako aldia dokumentu hau Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web-orriaren bitartez hedatuz egitea proposatzen da eta dokumentu hori EAEko Uraren Kontseiluarekin kontsultatu eta horren adostasuna jasota.

Horrela bada, kontsulta-aldi horretarako *informazioa ematea* eta *kontsulta publikoa* mailak proposatzen dira.

Dokumentuaren izaera kontuan izanda, beharrezkotzat jotzen da kontsulta horretarako

xehetasun gehiago izatea, ahalegin gehigarria hurrengo aldietan egin dadin, horietan gaien garrantziak parte-hartzearen maila ahalik eta handiena izatea komenigarri egiten baitu.

Aldi hori URAREN ESPARRU ZUZENTARAUAREN PLANGINTZA HIDROLOGIKOAREN PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROGRAMA, EGUTEGIA ETA FORMULAK izenburua duen dokumentu hau EAEko Uraren Kontseiluak onartzearekin osatuko litzateke.

## 5.6.3 GAI GARRANTZITSUEN ESKEMAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA

5.1 atalean adierazi den moduan, arroko organismoak (kasu honetan Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak) 2007ko ekainaren 30a baino lehen argitaratu beharko du mugaketa hidrografikoan uren kudeaketaren inguruan sortzen diren Gai Garrantzitsuen behin-behineko Eskema, kontsulta eta parte-hartze publikoaren mende jarri dadin.

Aldi horretarako kontsultako hiru mailak proposatzen dira, hau da, *informazioa ematea*, *kontsulta publikoa* eta *parte-hartze aktiboa*. Kontsulta eta parte-hartzeko epea ez da sei hilabete baino gutxiagokoa izango.

Aurrez adierazi den moduan, UEZarekin erlazioaturiko gainerako lanen moduan, parte-hartzeko prozesu hori ez da dokumentu honek erreferentzia egiten dion Euskadiko Barne Arroen esparrurako bakarrik diseinatu, EAE guztirako baizik, bere emaitzek arroko organismoek EAEko erkidego-arteko arroen esparruan dituzten betebeharrak betetzen laguntzeko balio izateko.

Kontsultako aldi horretarako diseinaturiko parte-hartzeko prozesuaren (2. irudia) helburua gizartearen parte-hartze orokorra izatea da, bi alderditan: alde batetik, gizarte guztiari irekitako hiritarren parte-hartze orokor eta irekia eta, bestetik, EAEn ur-ingurunearen kudeaketa, erabilera eta kontserbazioan inplikatuagoak dauden gizarte-

eragileei zuzendutako parte-hartze selektiboago bat.

Lehen kasuan, prozesuak hiritargoari, orokorrean, parte-hartze ireki eta aktiboa izateko aukera eskaintzen dio. Teknologia berriek eskaintzen dituzten abantaila ikaragarriak kontuan hartu dira eta, horregatik, hiritarrak UEZaren edukien informazio gutzia eta sortutako dokumentu teknikoak, bai eta parte-hartzeko prozesuari buruzko informazioa ere, aurkituko dituen **web-orri bat gaitzea** erabaki da. Hiritarrek parte hartu eta iritzia emateko espazio bat gaitzea ere aztertu da. Hala eta guztiz ere, dokumentazio hori paperean ere kontsultatu ahal izango da Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzaren bulegoetan.

Bigarren, prozesuak parte-hartze selektiboagoa biltzen du uraren gaitan inplikazio handiagoa duten gizarte eragile esanguratsuenekin. Prozesuaren kudeaketako eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideetan jarriz arreta, bi bide azaltzen dira: alde batetik, **arroen araberako lurraldeko parte-hartzea** eta, bestetik, **sektore-gaien araberako parte-hartzea**.

Eragileen arroen araberako parte-hartzerako EAEko lurraldea hiru parte-hartzeko esparru handitan banatu da (3. irudia):



- Isurialde kantauriarreko ekialdeko arroak: Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Oria, Urola eta Deba.
- Isurialde kantauriarreko mendebaldeko arroak: Artibai, Lea, Oka, Butroe, Ibaizabal, Barbadun, Aguera eta Karrantza.
- Mediterraneoko isurialdea: Puron, Omecillo, Baia, Zadorra, Inglares, Ega, Arakil eta Ebro.

Eragileen sektore-gaien araberako parte-hartzean bost interes-gai hartu dira kontuan, EAE ur-ingurunearen erabilera, kudeaketa eta kontserbazioaren gehien sartutako sektoreen adierazgarri direnak:

- Energia hidroelektrikoa
- Nekazaritza eta abeltzaintza
- Hornidura eta saneamendua
- Ura eta industria
- Ur-ingurunea eta ekosistema urtarrak.

Kasu batean nahiz bestean (eragileen arroen araberako parte-hartzea, eragileen sektore-gaien araberako parte-hartzea) parte-hartzeko prozedura antzekoa da:

**Eragileen identifikazioa.** Prozesua, EAEko Uraren Kontseilua kontsultatu ondoren, bertan parte hartzea gonbidatu beharko liratekeen eragileen identifikazioarekin hasten da. Arroen araberako parte-hartzearen kasuan, aurretiazko identifikazioa Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak egin ahal izango du. Sektore-gaien araberako parte-hartzearen kasuan, komeniko litzateke EAEko Uraren Kontseiluko kideek berriazko iradokizuna egitea.

**Informazioaren lehen bidalketa.** Eragile parte-hartzaileen identifikazioa egin ondoren, horietariko bakoitzari honako informazio hau igorriko zaio:

- Plangintza hidrologikokoaren prozesuari buruzko oinarriko informazioa eta parte-hartzeko prozesuaren eskema orokorra.
- Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak egindako atariko diagnostikoa (Plan Hidrologikoan jorratu beharko diren presio eta eragin nagusiak).
- Diagnostikoari ekarpen eta komentarioak egiteko eskaera, lehen lan-mintegiaren aurretik igorri beharko liratekeenak.

- Lehen lan-mintegiaren deialdia.

**Lehen mintegia.** Lehen mintegi honetan Uren Zuzendaritzak eta, hala badagokio, aurrez komentarioak edo iruzkinak egin dituzten eragileek, dokumentazioaren aurkezpena egingo dute. Diagnostikoari buruzko dokumentua eztabaidatuko da eta, hala badagokio, onartu.

**Informazioaren bigarren bidalketa.** Honako dokumentu hauek igorriko dira:

- Behin betiko diagnostikoa.
- Eusko Jaurlaritzaren uren Zuzendaritzak egindako behin-behineko jarduera-ildo orokorren definizioa (Ingurumen-helburuen proposamena; ingurumen-helburuak betetzeko beharrezko aldaketak eta beharrezko neurrien programa nagusiak, kontrol eta jarraipenekoak barne; jarduera-ildoak aurrera eramateko ezinbesteko parte-hartzea duten sektore eta taldeak).
- Dokumentuari ekarpenak eta komentarioak egiteko eskaera, bigarren mintegia baino lehen bidali beharko liratekeenak.
- Bigarren lan-mintegiaren deialdia.

**Bigarren mintegia.** Bigarren mintegi horretan Uren Zuzendaritzak eta, hala badagokio, aurrez komentarioak edo iruzkinak egin dituzten eragileek, dokumentazioaren aurkezpena egingo dute. Jarduera-ildo nagusiei buruzko dokumentua eztabaidatuko da eta, hala badagokio, onartu.

**Arroen edo sektore-gaien araberako behin betiko dokumentua egitea.** Identifikatutako gizarte eragileekin bi lan-mintegiak amaitu ondoren diagnostikoari, jarduera-ildoei eta mintegi bakoitzaren laburpenei buruzko behin betiko dokumentazioa egin eta hedatuko da.

**Plangintza-esparruen araberako laburpena.** Prozesuaren azken aldian, lortutako dokumentazioa Gai Garrantzitsuen Eskemari buruzko hiru dokumentu osotan laburtuko da, EAEko plangintza-esparru bakoitzerako batean, eta EAE guztirako gehigarri batean; honako datu hauek bilduko dituzte:

- Planean jorratu beharreko presio eta eragin nagusiak, ur-masak arriskuan jartzen dituzten sektore eta jarduerak barne (Diagnostikoa).
- Ingurumen-helburuen proposamena.



- Ingurumen-helburuak betetzeko aldaketa eta beharrezko neurrien programa nagusiak, kontrol eta jarraipenekoak barne (Jarduera Ildo Nagusiak).
- Jarduera-ildoak prestatzeko beharrezko ekarpena egiten dituzten sektore eta taldeak
- Beharrezko aldaketak lortzeko balizko eszenatokien adierazpen orokorra, horien karakterizazio ekonomikoa barne.

Gai Garrantzitsuen Eskemaren parte-hartze publikoko aldia amaitutakoan (2007ko abendurako

aurreikusitakoa), Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzak Euskadiko Barne Arroen dokumentua EAEko Uraren Kontseiluari igorriko dio, balizko aldaketen ondoren, 2008ko urtarrilaren 31 baino lehen onar dezan.

Erkidegoen arteko esparruei buruzko dokumentuak Iparraldeko eta Ebroko Ur Konfederazioei igorriko zaizkie, dagozkien hidrografia mugaketen plangintza hidrologikoaren prozesuan kontuan har ditzaten.

#### 5.6.4 PLAN HIDROLOGIKOAREN KONTSULTA ETA PARTE HARTZEKO ALDIA

1.1 atalean adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren Proiektuaren proposamena, aurrez zehaztutako edukiarekin, 2008ko ekainaren 30a baino lehen argitaratu beharko litzateke jendaurreko erakustaldiko eta parte-hartzeko aldian jartzeko.

Kontsultako eta parte-hartzeko printzipio eta tresnak Gai Garrantzitsuen Eskemarako proposaturikoen antzekoak izango dira. Kontsultako epea ez da sei hilabete baino gutxiagokoa izango.

Parte-hartze publikoko aldia amaitutakoan, Euskadiko Barne Arroen dokumentua, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ingurumen-memoria bilduko duena, etorkizuneko Uraren Euskal Agentziaren organoei igorriko zaie, balizko aldaketen ondoren, 2009ko ekainaren 30a baino lehen onar dezaten.

Erkidegoen arteko esparruei buruzko dokumentuak Iparraldeko eta Ebroko Ur Konfederazioei igorriko zaizkie, dagozkien hidrografia mugaketen plangintza hidrologikoaren prozesuan kontuan har ditzaten.

## 6. EUSKADIKO BARNE ARROETAKO PLAN HIDROLOGIKOAREN BERRIKUSPENA

### 6.1. PLANGINTZAREN LEHEN ALDIAN EGIN BEHARREKO ALDAKETA ETA HOBEKUNTZAK

Planaren helburua mugaketa hidrografikoan uraren kudeaketarako esparru berri bat ematea denez, hasiera batean ez litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoa aldatu edo hobetu behar, gutxienez plangintzako 6 urteko lehen aldian.

Hala eta guztiz ere, uren eta ur-ingurunearen kudeaketa etengabeko prozesua da. Nahiz eta ziurrenik Plana eta neurrien programaren laburpena zikloan zehar ez diren hobetu beharko, etorkizuneko Uraren Euskal Agentziak aldaketak sartu ahal izango ditu neurrien programaren ezarpeneko xehetasunetan.

Zenbait kasutan gerta daiteke proposaturiko neurrien programa nahikoa ez izatea planaren helbururen bat edo batzuk lortzeko. Kasu horretan, Agentziak zehaztu beharko du beharrezkoa den lehen zikloan zuzenketaren bat egitea. Jarraitu beharreko prozedura UEZaren 11.5 artikuluan ezartzen da eta honako hau baloratuko da:

- balizko ez-betetze horren kasuak ikertzea;
- egoki diren baimenak behar bezala aztertu eta berrikustea;
- jarraipen-programak behar bezala berrikusi eta egokitzea;
- helburuak lortzeko beharrezko neurri gehigarriak ezartzea.



Edonola ere, eta Uraren Legearen Testu Bateginaren 15.3 artikulua eskakizun formal bati jarraiki, Agentziak "Neurrien programaren aplikazio-maila zehaztuko duen tarteko txosten" bat egingo du plana indarrean sartu (edo eguneratu)

ondorengo 3 urteko epean, hau da, lehenengoz, 2012ko abenduaren 31 baino lehen, Ingurumen Ministerioak Europako Batzordeari Espainiako mugaketa guztien laburpen-txostena aurkeztu ahal izateko.

## 6.2. PLANAREN BERRIKUSPENA ETA BIGARREN ZIKLOAREN HASIERA

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoa eta neurrien programa 6 urtera berrikusi beharko dira eta plan eta neurrien programa berria egin beharko dira 2015eko abenduaren 31 baino lehen, 2021eko abenduaren 31 baino lehen eta abar. Lan horiek egiteko erabili beharko diren printzipioak plangintzaren lehen zikloko berak izango dira.

Berrikuspen horretan etorkizuneko Uraren Euskal Agentziak, bere esperientziaren eta publikoarenaren (alderdi interesatuak) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren eta neurrien programaren aplikazioa ebaluatu beharko du. Plangintza-prozesuan erabilitako informazioak eguneratua izan beharko du eta, besteak beste, datu hauek bildu beharko ditu:

- politikako eta lege-eskakizunetako aldaketak;
- ingurumen-kontrolako informaziorik berriena;

- informazio ekonomiko eguneratua; eta
- aurreko plangintza-zikloan lortutako esperientzia.

Plan berriak UEZaren VII. eranskinaren B atalean zehaztutako informazioa bildu beharko du:

- aurreko plana argitaratu zenetik egindako edozein aldaketa edo egunerapenen laburpena;
- ingurumen-helburuak lortze aldera egin den aurrerapenen ebaluazioa;
- aurreko planean aurreikusi zen eta abian jarri ez den edozein neurriren laburpena eta azalpena;
- aurrez aipaturiko 10.5 artikulua arabera hartutako neurri gehigarri iragankorren laburpena.

## 7. JARDUEREN KRONOGRAMA

Dokumentu honen 5. kapituluaren definitu dira 2006-2015 aldiari dagokion plangintza-prozesuaren aldi nagusiak eta prozesu hau osatzen duten elementuen garapenean oinarritutako prozesuaren programa eta egutegia azaldu dira.


- Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen Plan Hidrologikoaren Plan Hidrologikoaren prestaketa.
- Neurrien Programaren garapena.
- Xehetasun-plan edo -programak.
- Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.
- Parte-hartze publikoa.

Aldi horiek ezartzeko, EAEko administrazio hidraulikoak eta beste administrazio eskudun batzuek jarduera ugari egin beharko dituzte, askotan elkarren mendekoak direnak eta UEZan edota Uraren Legearen Testu Bateginean zehazten ez direnak.


Dokumentuaren azken kapituluaren helburua lanen gutxi gorabeherako kronograma azaltzea da, prozesuan parte hartzen duten elementu desberdinen arteko erlazioak ikustea ahalbidetu eta egin beharreko lan eta jarduerak planifikatzerakoan erreferentzia gisa balioko duena.




1. irudia Euskadiko Barne Arroen Mugaketa



2. irudia Gai Garrantzitsuen Eskemaren kontsulta-aldiaren parte-hartzearen eskema



3. irudia Eragileen arroen araberako parte-hartzea



1. taula Euskadiko Barne Arroetako Plangintza Hidrologikoaren prozesuaren kronograma

		2006	2007	2008	2009
PLAN HIDROLOGIKOA	"Programa, egutegia eta kontsulta-formulak" idaztea	■			
	<b>"Programa, egutegia eta kontsulta-formulak" onartzea</b>	■			
	"Gai Garrantzitsuen Eskemaren" proposamena egitea		■		
	<b>"Gai Garrantzitsuen Eskema" onartzea</b>			■	
	"Plan Hidrologikoaren Proiektuaren" proposamena egitea		■		
	"Plan Hidrologikoaren Proiektua" egitea			■	
	<b>"Plan Hidrologikoaren Proiektua" onartzea</b>				■
	"Plan Hidrologikoaren Proiektua" berrikusi eta onartzea				■
<b>"Plan Hidrologikoaren Proiektua" argitaratzea</b>					■
NEURRIEN PROGRAMA	Neurrien identifikazioa		■		
	Proposaturiko neurrien azterketa ekonomikoa		■		
	Ingurumen-helburuen egokitzea			■	
	Neurrien Programaren Proposamena idaztea			■	
	Neurrien Programaren hasierako proposamena			■	
	Neurrien Programa egokitzea			■	■
	<b>Neurrien Programa onartzea</b>				■
INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA	Ingurumen organoari Hasierako Dokumentuak helaraztea		■		
	Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena hastea			■	
	Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena			■	
	Plan Hidrologikoaren Proiektuaren proposamena			■	
	Kontsulta eta parte-hartze publikoa			■	
	Ingurumen-memoria				■
PARTE HARTZE PUBLIKOA	"Programa, egutegia eta kontsulta-formulen" kontsulta	■			
	"Gai Garrantzitsuen Eskemaren" kontsulta		■		
	Plan Hidrologikoaren kontsulta			■	

